

## Eta ni banoa

Ion Maia / Gari

Ba al dakizu sua  
ahaztu zitzaidalda zure bihotzian  
ba al dakizu bala batek  
zulatzen nauela zutaz pentsatzian  
kontatu al dizut inoiz eguzkiarena  
eguzki gorria dela zeruaren ardoa  
eta ilargiak pizten didala azken zigarroa.

Baina ni banoa  
eta ez dakit nora  
bidaia ezazu zuganantz  
har itzazu oporrak zeure barrurantz  
egingo dizut leku bat nire infernuan, zatoz.

Pasiatuko gara gure minerantz  
ia topatzen dugun gezur hori berriz  
eta defendatuko dugu alaitasuna  
alaitasunarengandik  
esan al dizut inoiz ez nauzula maite maitia.

Lasaitasuna da behar duzuna.

*¿Sabes que se me olvidó  
el fuego en tu corazón?  
¿Sabes que una bala  
me atraviesa cuando pienso en ti?  
¿Te he contado ya lo del sol,  
que el sol rojo es el vino del cielo  
y que la luna me enciende el último cigarrillo?*

*Pero yo me voy  
y no se a dónde  
haz un viaje hacia tí  
tómame unas vacaciones hacia tu interior  
te haré un hueco en mi infierno, vente.*

*Daremos un paseo hacia nuestro dolor  
a ver si encontramos de nuevo esa mentira,  
y defenderemos la alegría desde la alegría  
¿Te he dicho alguna vez que no me quieres, cariño?  
Lo que necesitas es tranquilidad.*

Arturo García: Batera  
Charli Solano: Baxua  
Fran Iturbe: Kitarrek  
Josu Zabala: Soinua  
Gari: Ahotsa

## Ez da ezer, ez da egia

Mikel Lasa / Gari

Ez da ezer, ez da egia  
Kontra nagoena naiz  
kontraren kontra  
ta ez dago inor nere alde.

Gauerdian nago  
romantikoen ugartearen  
izatearen mugan  
mugaren mugan.

Gauerdian nago  
ta hilak ditut lagun  
herioak ildo sakon orotan  
erein begi gozo  
eta iluneko gazte-hilok.

Gauerdian nago  
ta itzalak ditut lagun  
bakarrik ez naizen  
sekula sekulakotz.

Begi gozo ta iluneko miloika kristo.

*Nada es nada es verdad  
soy el que está a la contra  
y nadie está a mi favor.*

*Estoy en la medianoche  
en la isla de los románticos  
en la frontera del ser  
en el límite del límite.*

*Y en el castillo del Marqués de Sade.*

*Estoy en la medianoche  
y los muertos me acompañan  
joven Aragon Tzara Neruda  
Lautréamont pobre Lelian  
Kafka  
y la mirada triste de Baudelaire.*

*Estoy en la medianoche  
y las sombras me acompañan  
para no quedarme solo  
por los siglos de los siglos.*

Arturo García: Batera  
Charli Solano: Bajua  
Fran Iturbe: Kitarrak  
Karlós «Mahoma»: Ahotsa  
Gari: Ahotsa

## Bihotz urdina

Ion Maia / Gari

Bihotz urdina, kuzkurtzen doa  
oroitzen zaitudanean  
zerua urdin, urdina bihotz  
itsas galema batean  
amestutako lurrak nun daude?  
entzuten da batelean  
bihotz urdina kuzkurtzen doa  
oroitzen zaitudanean.

Joan da ekaitza, itzali dira  
eromenaren argiak  
itsasoaren uretan gora  
arnasan bihotz gorriak  
uraren dantza amaigabeak  
mugitzen diren harriak  
joan da ekaitza, barea dator  
bidea mozten du amildegiak.

Dena beldurra  
amildegiak mozten du lurra  
dena da hutsa  
zuloan dena da beltza  
dena amildegi ertza.

*El corazón azul se contrae  
cuando te recuerdo,  
cielo azul; azul corazón  
¿dónde están las tierras soñadas?  
se oye en el batel  
durante la galema,  
el corazón azul se contrae  
cuando te recuerdo.*

*La tormenta ha amainado,  
se han apagado las luces de la locura  
corazones rojos en el aliento  
al remontar las aguas del mar  
en su interminable danza  
rocas que se mueven,  
ha amainado la tormenta, llega la calma  
el camino acaba en el abismo.*

*Todo es miedo  
la tierra acaba en el abismo  
todo es vacío  
en el agujero todo es negro  
todo es borde del abismo.*

Arturo García: Batera.  
Charli Solano: Baxua.  
Fran Iturbe: Kitararak, ahotsa

Ion Maia: Bertsoa  
Roberto Moso: Ahotsa  
Gari: Ahotsa.

## Batzutan

Ion Maia / Fran Iturbe, Gari

Negarrez ari naizenian  
ispilura begiratu eta  
parregura etortzen zait.

Barruak erretzen zaizkidanean  
ur baso bat edaten dut eta  
aurpegia aldatzen zait  
beste egun bat horrela  
alde egin zaidala berriz  
konturatu naiz.

Zeruak  
ur tanten lekuan harriak  
botatzen dituenian  
ez nau hunkitzen nere burua  
negarrez ikusteak  
ez dakit hau normala den  
eta gainera ez zait inporta.

*Cuando lloro  
miro al espejo  
y me dan ganas de reír.*

*Cuando me arden las entrañas  
me bebo un vaso de agua  
y se me cambia la cara  
me doy cuenta  
de que así se me ha vuelto  
a escapar otro día.*

*Cuando el cielo  
llueve piedras  
en vez de gotas de agua,  
verme llorando  
no me afecta,  
no se si esto es normal  
y ni siquiera me importa.*

Arturo García: Batera  
Charli Solano: Baxua  
Fran Iturbe: Kitarrak  
Bingen Mendizabal: Biolina  
Gari: Ahotsa

## Nabil

Igor Elortza / Gari

Zeuretzako da neurtitza  
mundu ero mundu hitsa,  
milaka iraultza txikiren eta  
haundien gerren emaitza.  
Bakarra baina zatikatua  
bat baina bateragaitza.  
Ba al zara ezer gehiago?  
ezer gehiago  
nere begiek marrazten duten  
mendikatetik harago?  
borobiltasun bihurriren bat  
zutaz jabetu bailitza  
nondik nora inork ez daki baina  
bueltakea omen zabilta.

Herri zahar bat izanik,  
gurean aspaldidanik  
ondo dakigu nondik gatozen  
nora goazen ez oraindik.  
Urtetan gure zai daude nonbait  
ta ez gabiltza urrun handik.  
Eta ni hemendik nator,  
hemendik nator  
lehen poza hemen eman zidaten  
bigarren disgustua hor.  
Arerioak arerio ta  
lagunak lagun harturik  
espaloietan gora ta behera  
nabil ta ibili nahi dut nik.

Nabil ta ibili nahi dut nik  
nire bidé neuk hautaturik  
Nabil ta ibili nahi dut nik  
kolpeak hartu ahala zutundurik  
Nabil ta ibili nahi dut nik  
ez diot erortzeari bildurrik  
nire bidea neuk hautaturik  
ez diot erortzeari bildurrik.

## Eguzki berritan zaude

Mikel Lasa / Gari

Amets iluneko gauaren ondotik  
begi berriekin ikusten baduzu ortzi berri bat  
maitasun kolore, egiazkoa  
lilurazko izar-ilargirik gabe.,

Ez bila  
ez galde  
eguzki berritan zaude.

Izaki oro esnatu dadinean  
ta itzalak erori  
eguna jaiki garaian  
mendi mugak su ta gar  
oro egi, oro garbi, badaezpadako amets lilurarik gabe  
nahiz ta eguzkia oraindik ez ikusi.

Ez bila  
ez galde  
badakizu, eguzki berritan zaude.

Hemeretzi edo hogei urte inguruan  
lasai sentitzen ez bazara zeure giroan  
gorputz eta ispiritu indarrez gainezka  
mundu zabalaren (beharrez) beharrean.

Eta irazan indarra somatzen baduzu,  
beste izaki baten beharra  
maitasun lehertze giharra  
nahiz eta eguzkia oraindik ez ikusi.

Ez bila  
ez galde  
eguzki berritan zaude.

Ez bila; ez galde  
zalantza oro bazter  
eguzki berritan gaude.

Victor Celada: Batera.  
Charli Solano: Baxua.  
Fran Iturbe: Kitarak  
Gari: Ahotsak.

## Zaharra zara Bilbo

Ion Maia / Gari

Neoizko argiak erdi zintzilik  
daude taberna gainean  
urratu den, aurpegi den  
parea gorrian.

Zubiak gora zutitzen ziren  
Portmouthekeo ontzientzat  
lehen «euskalduna», gaur palazioa  
eta biharko laino beltzak.

Begiratzen zaitut  
zuloaren gainetik  
zerbait esan nahi dizut  
zuga galdu aurretik  
zaharra zara Bilbo.

La vieja sartu da nerbioi erriberan  
oinak urbeltzetan, loreak baineran  
mozkortzen nauzu ta ezin zaitut edan.

Neoizko argiak erdi zintzilik  
daude taberna gainean  
egin nazazu zurea  
kantak diräuen artean.

Gerritik heltzen ondoen dakien  
bero luzearen jabe  
guapa etorri, irri batekin  
ziurtatuta ez al gaude?

*Luces de neón medio caídas  
sobre la taberna,  
en el rostro de la roja pared  
agrietada.*

*Levantaban los puentes  
para los barcos de Portsmouth,  
antes Euskalduna, ahora palacio,  
negras nubes del mañana.*

*Desde arriba  
te observo en el agujero,  
antes de perderme en ti  
te quiero decir algo,  
eres vieja, Bilbao*

*Bilbao la Vieja entra en la ribera del Nervión  
con los pies en sus negras aguas, las flores en la bañera,  
me emborrachas y no puedo beberte.*

*Luces de neón medio caídas  
sobre la taberna,  
hazme tuyo  
mientras dura la canción.*

*Dueña del largo brazo  
que mejor coge de la cintura,  
ven, guapa, ¿no nos basta  
una sonrisa para estar seguros?*

## Naufrago isolatua

Asier Serrano / Gari

Beti gorri dagoen semaforo hontatik  
zerua ezberdin imajina dezaket arratsero  
zure epain lizunetara mugatzen da nire norabidea.

Arnasik gabeko hitzak  
hitzik gabeko aieneak  
orainean zaitudalako, damutzen naiz.

Kale eta ispilu den lehio hontatik  
goizero zauzkat hiriaren ihintza biltzen  
likore tantanek zure lepoa freskatzen dute nire oroimina erotzeko.

Amodiorik gabeko antsia  
antsiarik gabeko balada  
sinatu zaitudalako, oztopatzen zaitut.

Auzokidea striptisa dohainik eskeintzen badoa  
Guggenheim erakina aurrera ta txakurrak oinutsik kalean  
irratiko «kontertulioak» egoera «vaskoaz» kexuka.

Hegorik gabeko iparra  
iparrrik gabeko norantza  
mozkor nauzulako, harrotzen naiz.

Naufrago isolatu honen ohearen etzanetik  
kristal hautsia zara sabaiaren izarapean  
izter zoko biluztuen nostalgia nire ezinaren garrazteko.

Izotzik gabeko izua  
izurik gabeko agurra  
untzi nauzulako, agurtzen zaitut.

*Desde este semáforo siempre en rojo  
puedo imaginar un cielo diferente cada atardecer  
tus labios lascivos son mi único rumbo.*

*Palabras sin aliento  
lamentos sin palabras  
de tenerte presente me arrepiento.*

*Desde esta ventana que es calle y espejo  
cada mañana te tengo recogiendo el relente de la ciudad,  
gotas de licor refrescan tu cuello enloqueciendo mi nostalgia.*

*Anhelos sin amor  
balada sin anhelo  
te estorbo porque te he firmado.*

*Un vecino va ofreciendo un striptease gratuito  
el edificio Guggenheim en obras y perros descalzos por la calle  
los contertulios de la radio se quejan de la movida vasca.*

*Norte sin sur  
rumbo sin norte  
me tienes ebrio y estoy orgulloso de ello.*

*Desde que te tendiste en la cama de este naufrago aislado  
eres un cristal roto bajo el techo de las sábanas  
la nostalgia de tus muslos desnudos amarga mi impotencia.*

*Espanto sin hielo  
adiós sin espanto  
te despido porque soy tu barco.*

Arturo García: Batera  
Charli Solano: Baxua  
Fran Iturbe: Kitarrak

Bingen Mendizabal: Mandolina  
Gari: Ahotsa



## Hau espektakulua

Ion Maia / The Jam (*Moldaketak*: Gari, Ch. Solano, V. Celada, F. Iturbe)

Bi mila urte igaro ta gero  
gizona hutsik ta burua zero  
inozentzi bat hiltzen da gauero  
hiru gixajo ta bi kamarero

Egunkaria hartzen dut goizian  
ideiak eta dirua krisian  
animalien larruak pasian  
lehengo pobriak berriro gosian

Ogidenda ta haragitegian  
pelikularik ez dagon tokian  
gure ametsak jatekoak dira  
kupoi batean dago utopia

Esaten dute ez nadila kexa  
inorentzako ez dela erreza  
gaurko hutsa da atzoko promesa  
goza dezagun eskubide eza.

*Después de dos mil años  
el hombre está vacío y su cabeza hueca,  
cada noche muere una inocencia,  
tres desgraciados y un camarero.*

*Cojo el periódico por la mañana  
crisis en las ideas y el dinero  
desfile de pieles animales  
los pobres de antes, otra vez hambrientos*

*En la panadería y en la carnicería,  
allí donde no hay películas,  
nuestros sueños son comida,  
la utopía es un cupón.*

*Dicen que no me queje  
que nadie lo tiene fácil  
la promesa de ayer es el vacío de hoy  
gocemos de nuestra falta de derechos.*

Victor Celada: Batera  
Charli Solano: Baxua  
Fran Iturbe: Kitarrak  
Gari: Kitarra, ahotsa